

PRENTSA OHARRA, HAZI FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 28an Hazi Fundazioaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiko.

2017ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

Berebat, Sozietateak **zuzentasunez bete du** 2017ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautu duen lege araudia, nahiz unean uneko ez-betetzeak azaleratu diren Langileen alorrean, izan ere gainditu egin da Estatuko Aurrekontuen Legeak finkatzen duen birjartze-tasa eta 10 langilek lan kontratu mugagabe ez finko izaera beretu dute.